

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Oposizioak eta lehiaketak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 5297

*1123/2025 EBAZPENA, azaroaren 18koa, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez deialdia egiten baita Barrualdeko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostu bat lehiaketa-sistemaren bidez hornitzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.*

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Barrualdeko Eskualdeko Zerbitzu Sanitarioko buruaren lanpostua hutsik dago. Hori dela-eta, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan, Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legean eta Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoarekin, Zuzendaritza Gerentzia honek erabaki du deialdi publikoa iragartzea aipatutako lanpostua lehiaketa-sistemaren bidez hornitzeko, oinarri hauen arabera:

#### OINARRIAK

##### 1.– Parte hartzeko baldintzak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute eskabideak aurkezteko epeko azken egunean baldintza hauek betetzen dituztela frogatzen dutenek:

a) Estatutupeko, funtzionario edo langile lan-kontratadun finkoa izatea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edozein zerbitzu-erakundetan, edo estatutupeko langile finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan, A1 lanbide-taldekoa izatea, eta zerbitzu aktiboan egotea edo lanbide-talde horretako lanpostua erreserbatzea dakarren beste administrazio-egoera batean egotea.

b) Medikuntzako lizentziadun titulua eta psikiatriako espezialitatea edukitzea.

c) Gutxienez 4 urteko lan-esperientzia izatea psikiatriako espezialitatean.

d) 2. hizkuntza-eskakizuna (derrigortasun-data: 2021-11-20).

##### 2.– Deialdia argitaratzea.

Ebazpen hau osorik argitaratu beharko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean.

##### 3.– Eskabideak aurkezteko epea eta modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzara bidali beharko dituzte eskabideak (Maria Diaz Haroko kalea 58, 48010 Bilbao). Horretarako 15 egun balioduneko epea izango dute, deialdiaren ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Halaber, Administrazio

Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan ezarritako eran aurkeztu ahalko dira eskabideak.

Interesdunek Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko Langileen Zuzendaritzan aurkeztu beharko dute eskabidea, beren datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako curriculum vitaearekin (CV) batera.

Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, langile lan-kontratudun finkoa dela egiaztatzen duen agiriarena.
- Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua: medikuntzako lizentziadun titulua eta psikiatriako espezialitatea.
- Deialdia EHAA-n argitaratu arte emandako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiri eguneratua, dagokion kategoria adierazita.
- Deitzen den zerbitzuaren kudeaketako proiektu-memoria.
- Merezimendu baloragarriak egiaztatzen dituzten dokumentu guztien fotokopia konpultsatua.

Osakidetza Curriculum Vitae aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan azaldu den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman beharko du eskabidean.

4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea bukatutakoan, Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerenteak, ebazpen baten bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko du Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du.

Baztertutako izangaiek 10 egun balioduneko epea izango dute erreklamazioak egiteko, aipatutako ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Baztertu izanaren arrazoia zuzendu daitekeen akatsa bada, interesdunei eskatuko zaie, aipatutako behin-behineko zerrenda horren argitalpenaren bidez, ikusitako akatsak zuzen edo nahitaezko dokumentuak bidal ditzaten 10 egun balioduneko epean. Horrekin batera, jakinaraziko zaie horrela egin ezean prozesutik kanpo geldituko direla behin betiko.

5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera.

Erreklamazioak egiteko edota eskabideetako akatsak zuzentzeko epea igarotakoan, Zuzendaritza Gerentziak, ebazpen baten bidez, prozesuan onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda eta Balorazio Batzordearen osaera argitaratuko ditu Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko webgunean.

Behin betiko ebazpenaren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Era berean, ebazpen horren berri emango zaie prozesuko hautagaiei.

Balorzio Batzordeko burua BOMSeko zuzendari medikoa izango da eta kide hauek izango ditu: Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiko zuzendariorde medikoa edo Zerbitzu Korporatiboko burua eta BOMSeko Langileen zuzendaria (idazkari gisa jardungo du eta hitza eta botoa izango ditu). Nolanahi ere, ezingo balitz hala izan, erakundeko beste kargu batzuek osatuko dute Batzordea. Horiek denak derrigor izan beharko dira estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo langile lan-kontratudun finkoak, eta deialdian eskainitako lanpostuaren titulu-maila bera eduki.

Esandakoak ez ezik, beste hiru batzordekide izango ditu batzordeak (bat IVAPek izendatua). Hirurek ere izangaiei eskatutako titulua eduki eta espezialitate berekoak izan beharko dute, estatutupeko langile finkoak, karrerako funtzionarioak edo langile lan-kontratudun finkoak izan beharko dute, eta, horrez gain, deialdian eskainitako lanpostu funtzionalaren hierarkia-maila berekoak edo goragokoak izan beharko dute.

Batzordeko kide titular bakoitzeko ordezkotzat bat izendatuko da, haren lekua har dezan aurrekoak huts eginez gero. Ordezkoak titularrentzat zehaztutako baldintzak bete beharko ditu. Aipatutako lanpostuetako bat ez badago, edo hutsik badago, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko beste edozein zerbitzu-erakundetako maila baliokideko langile bat izendatu ahalko da.

Kide bakoitzak modu indibidualean izango da batzorde horretako kide. Funtzionamenduan, independenteak izango dira eta diskrezionalitate teknikoaren babesean jardungo dute, betiere zuzenbidearekiko mendekotasunari kalterik egin gabe.

Balorzio Batzordearen osaerak emakumeen eta gizonen presentzia orekatuaren printzipioa beteko du, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezarritakoaren arabera.

Batzordea osatzen duten pertsonak ez dute jardungo baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako inguruabarren bat gertatzen bada, eta hala jakinarazi beharko diote deialdia egin duen agintaritzari. Halako kasuetan, prozesuan parte hartzen duten pertsonak horien errekusatzea sustatu ahalko dute edozein unetan, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Era berean, Balorzio Batzordeak aipatutako 40/2015 Legearen 15etik 24ra bitarteko artikuluetan zehaztutako arauetara egokituko du bere jarduna.

Batzordeak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legezkotasuna zainduko du, eta objektibotasuna bermatzeaz arduratuko da. Halaber, deialdiaren oinarriak aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu, eta horietan aurreikusi ez diren kasuetan zein irizpide erabili behar den erabakiko du. Gainera, izangaiak ebaluatu aurretik, aktan jaso beharko dira ebaluazioko irizpide espezifikokoak, oinarriari eta oinarriotan jasotako merezimenduen baremoari jarraituta.

Balorzio Batzordeko kide guztiak hitza eta botoa izango dute. Erabakiak gehiengoz hartuko dira, eta akta batean jasoko dira.

#### 6.– Hautaketa-prozedura.

Izangaien merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu:

##### a) Kudeaketako proiektu-memoria eta defentsa.

Balorzio Batzordeak modu frogagarrian egingo die deialdia izangaiei, prozesuan parte hartzeko eskabidearekin batera aurkeztutako memoriari dagokion kudeaketa-proiektuaren defentsa

publikoa egin dezaten. Deialdi hori 72 ordu lehenago egin beharko da gutxienez, eta izangaien agerraldiaren eguna, tokia eta ordua adierazi beharko da. Gainera, deialdi horren iragarki bat argitaratu beharko da Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean.

Oro har, aurkeztutako kudeaketa-proiektuaren defentsa publikoa egin aurretik, Balorazio Batzordeko kideek eurei eragin diezaieketen abstentzio edo errekusazio-arrazoiak aztertuko dituzte, eta deialdia egin duen organoari jakinaraziko dizkiote.

Ondoren, izangaien banakako deia egingo da proiektuaren azalpena eta defentsa egin dezaten. Gero, elkarrizketa bat egingo zaie, eta, horren bidez, Balorazio Batzordeko kideek galderak egingo dituzte proiektuan jasotako alderdiei buruz, gehiago argitzeko edo sakontzeko.

Bai proiektuaren azalpena eta defentsa, bai elkarrizketa publikoak izango dira.

Izangaien proiektuen aurkezpen publikoa amaitutakoan, Balorazio Batzordeak puntuak emango dizkio izangai bakoitzari, deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera.

b) Merezimenduen balorazioa.

Balorazio Batzordeak izangai bakoitzaren merezimenduen balorazioa eta puntuazioa egingo du, deialdiaren oinarrietan xedatutakoaren arabera. Atxikitako eranskinean jasotzen da buruzagitzako lanpostuak hornitzeko prozesu hauetan aplikatu beharreko merezimenduen baremoa.

c) Akta eta izendapen-proposamena.

Balorazio Batzordearen aktan, zehazki jaso beharko da epaimahaikideek hautagai bakoitzari baremoko atal bakoitzean emandako puntuazioa, baita batzordeak hautagaiei emandako puntuazio osoa ere, eta hori ez ezik, batzordeak puntuazioak emateko –bai hautagai bakoitzak aurkeztutako zerbitzuaren kudeaketako proiektu-memoriaren edukiaren puntuazioa, bai egindako aurkezpen publikoaren puntuazioa– oinarritzat hartu dituen alderdiei buruzko azalpen labur bat ere jaso beharko da aktan, beste ataletako puntuazio xehatuaz gain.

d) Izendapena.

Izendatua izateko, prozesuaren gehieneko puntuazioaren erdia lortu behar da gutxienez, eta proiektua eta haren defentsa baloratzeko atalerako finkatutako gehieneko puntuazioaren erdia, nahitaez.

Puntuazio handiena lortu duen izangaiaren aldeko Balorazio Batzordearen proposamena jasoko da aktan.

7.– Prozeduraren ebazpena.

Izangaiek aurkeztutako proiektuak eta curriculumeko merezimenduak ebaluatzeko fasea amaituta, Balorazio Batzordeak izendapen-proposamena egingo dio Zuzendaritza Gerentziari, puntuazio handiena lortu duen izangaiaren alde, eta, proposamenean, modu xehatuan adierazi beharko du baremoaren epigrafe bakoitzean izangaiek lortutako puntuazioa. Ez badago deialdian zehaztutako eskakizunak betetzen dituen izangairik edo izangaiek ez badute lortu eskatutako gutxienerako puntuazioa, deialdia hutsik uztea proposatuko du Balorazio Batzordeak. Proposamen hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko da.

Zuzendaritza Gerentziak, proposamena aztertuta, ebazpen bat emango du proposatutako izangaia deialdiko lanpostua betetzeko izendatzeko edo deialdia hutsik uzteko. Azken kasu horretan, arrazoi zehatza adierazi beharko da:

a) Izangairik ez aurkeztea.

b) Izangaiek baldintzak ez betetzea.

c) Izangaiek ez dute lortu gutxienerako puntuazioa.

a) apartatuaren kasuan, Zuzendaritza Gerentziak deialdia hutsik utz dezake, onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda onartu ondoren, izapide gehiagorik egin gabe.

Izendapenaren ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean argitaratuko da. Ebazpenaren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Ente Publikoko Zuzendaritza Nagusiari, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8.– Esleipenaren ondorioak.

Zerbitzuko buruaren lanpostua aldi baterako izendatuko da, lau urterako, eta epe hori luzatu ahal izango da Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru hirugarren arau komunean ezarritakoaren arabera (uztailaren 21eko EHAA, 138. zk.).

9.– Ebazpen honen aurkako errekurtsuak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2025eko azaroaren 18a.

Bizkaiko Osasun Mentaleko Sareko zuzendari-gerentea,  
ARATXU LOZANO OTERO.

## ERANSKINA

Barrualdeko Eskualdeko Zerbitzuaren buruzagitzaren deialdirako merezimenduan baremoa Bizkaiko Osasun Mentaleko Sarean.

Merezimenduen baremoa (gehienez, 66 puntu).

Merezimenduen balorazioak fase hauek izango ditu:

I.– Proiektua eta defentsa (gehienez, 30 puntu).

Izangaiek dagokion zerbitzuaren antolaketako eta funtzionamenduko proiektu-memoria bat aurkeztu beharko dute, kalifikazio-epaimahai baten aurrean aurkezpen publikoa egin beharko dute eta epaimahaiko kideek planteatutako galderei erantzun beharko dizkiete.

Fase honen puntuazioa bi atal hauetan xehatzen da:

a) Aurkeztu den zerbitzuaren kudeaketako proiektu-memoriaren edukiaren balorazioa (gehienez, 15 puntu).

Kudeaketako proiektu-memorian atal hauek garatu beharko dira, gutxienez:

a.1.– Antolaketarekin eta kudeaketarekin lotutako atala (gehienez, 7 puntu).

Zentroen organigrama, buruzagitza-lanpostuaren funtzioak eta hari atxikitako gainerako lanpostuen funtzioak adierazita.

Zentroek eta erakunde bereko beste unitateek elkarren artean duten harremana.

Buruzagitzaren kudeaketa-plana, antolamendu-helburuak definituta, hobekuntzako arloak detektatu eta aztertuta, eta horiek lortzeko behar diren neurri egokiak identifikatuta. Eta horrekin batera, esleitutako giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko konpromisoa edo plana.

a.2.– Atal asistentziala (gehienez, 5 puntu).

Zerbitzu asistentzialen zorroaren deskribapena.

Adierazle eta helburu asistentzialak ezartzea, horien jarraipena eta ebaluazioa etengabe egiteko sistemarekin batera.

a.3.– Irakaskuntzari eta ikerketari lotutako atala (gehienez, 3 puntu).

Irakaskuntzaren planifikazioa ezartzea zerbitzuan.

b) Horren azalpen publikoa Balorazio Batzordearen aurrean (gehienez, 15 puntu).

Proiektuaren jendaurreko azalpena ebaluatzean, proiektu-memoriaren defentsan izandako argitasuna eta zehaztasuna hartuko dira kontuan, baita haren arlo garrantzitsuenak azaltzeko gaitasuna ere. Dagokion aktan, kide bakoitzak hautagai bakoitzari emandako puntuazioaren justifikazioa jaso beharko da.

II.– Merezimenduen balorazioa (gehienez, 30 puntu).

Puntuazioa honela banatuko da:

II.1.– Lan-esperientzia (gehienez, 13 puntu).

– Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,0500 puntu.

– Dagokion espezialitatean ataleko buru gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,0750 puntu.

– Dagokion espezialitatean zerbitzuko buru gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

– Administrazio publiko sanitarioen zuzendari gisa edo zuzendariorde mediko gisa zerbitzua eman duen hilabete bakoitzeko: 0,1000 puntu.

Kontuan hartuko dira, lan-esperientzia gisa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko, Gizarte Segurantzako eta autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuetan edo edozein administrazio publikotakoan emandako zerbitzuak, bai eta Europar Batasuneko gainerako estatuetako sare publikoko osasun-zerbitzuetan emandakoak ere.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako soberakinak. Ondorio horietarako, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da hilabetetzat.

II.2.– Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren hedapena (gehienez, 17 puntu).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu-kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,1 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Prestakuntza kudeaketaren arloan (gehienez, 3 puntu).

Osasun-kudeaketari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

– 20 eta 30 ordu bitartean: 0,2000 puntu.

– 31 eta 50 ordu bitartean: 0,3000 puntu.

– 51 eta 100 ordu bitartean: 0,4000 puntu.

– 101 eta 200 ordu bitartean: 0,5000 puntu.

– 200 ordu baino gehiago: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, baita Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak edota beste edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofiziala lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (gehienez, 3 puntu).

Dagokion lanpostuaren espezialitateari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

– 20 eta 30 ordu bitartean: 0,2000 puntu.

– 31 eta 50 ordu bitartean: 0,3000 puntu.

– 51 eta 100 ordu bitartean: 0,4000 puntu.

– 101 eta 200 ordu bitartean: 0,5000 puntu.

– 200 ordu baino gehiago: 1,2500 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek eta, hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak balioztatuko dira, baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3.– Graduondoko prestakuntza (gehienez, 5 puntu):

- Doktore-titulua: 3 puntu.
- Cum laude doktore-titulua: 4 puntu.
- Graduondoko masterra: 2 puntu.
- Unibertsitateko aditu edo espezialista titulua: 1 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo diploma ikasketa aurreratuetan: 1 puntu.
- Doktoretza-ikastaroak: doktoretza-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (gehienez, 10 ikastaro): 0,1000 puntu.

Ez dira kontuan hartuko doktore-titulua, cum laude doktore-titulua, ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroak.

II.2.4.– Jarduera zientifikoa (gehienez, 3 puntu).

Dagokion espezialitateari lotutako lan zientifikoak argitaratzeagatik, txostenak edo komunikazioak aurkezteagatik eta hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,2500 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 1,0000 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 1,5000 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 0,1500 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 0,6000 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio edo poster bakoitzeko: 1,0000 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,2000 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 0,7500 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,2500 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2,0000 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1,0000 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1,0000 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5000 puntu.
- Tesina bakoitzeko: 1,5000 puntu.

II.2.5.– Irakaskuntzako jarduera (gehienez, 3 puntu).

– Medikuntza Fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 1,0000 puntu.

– Medikuntza Fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.

– Medikuntza Fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,2500 puntu.

– Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,5000 puntu.

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,0500 puntu.

III.– Euskararen ezagutza (gehienez, 6 puntu).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.